



BOS INTERNETEKO GIZARTE-SAREETAN SARTU DA

BOSek Interneteko gizarte-sareetan oinarritutako informazio-kanal berriak sortu ditu, musikazaleei zerbitzu arin eta elkarreragileagoa eskaintzeko.

Bilbon, 2009ko urriaren 19an

Gaurtik aurrera, Internet erabiltzen duten musikazaleek BOSekin komunikatzeko bide berriak dituzte, bai BOSen jardueren berri izateko, zein BOSekin harremanetan jartzeko. Facebook, Twitter, Youtube eta Flickr-ek Bilbao Orkestra Sinfonikoaren orri propioak dituzte gaurtik aurrera.

Horrela, bada, Estatuko orkestra publikoen artean BOS da gizarte-sareetan sartu den lehena. AEOSen barruan (Orkestra Sinfonikoen Espainiako Elkarte), Vallesko Orkestra Sinfonikoak eta BOSek berak baino ez dituzte gizartearekiko komunikaziorako norabide biko kanal hauek.

Orrialde horietara jotzen duten Interneteko erabiltzaileek BOSi buruzko era askotako informazioa aurkitu ahal izango dute:

Facebook: gizarte-sare hau, Orkestraren web orrialdearekin batera, jardueraren ardatz bihurtu da Internet bidezko komunikazio-kanal berrien artean. Bertan, Orkestraren jarduera guztien berri izateaz gain, **parte-hartzaileek beren oharrak ere sartu ahal izango dituzte**, eta hori oso garrantzitsua da. Horiek horrela, Orkestraren eta jendearen interesak hurbiltzen lagunduko duen norabide biko kanala sortuko da.

Twitter: Facebooken BOSi buruz egiten diren oharrak eta dauden nobedadeak azkar ezagutu nahi dituztenentzat, microBloggineko kanal honek nobedade guztiak eskaintzen ditu 140 karakteretan. Oinarrizko ezaugarria da hau ere **norabide bikoa** dela.

Youtube: Interneteko bideo-zerbitzu honetan, BOSek kanal bat sortu du, eta, bertan, BOSen kontzertuen eta jarduera desberdinen aurkezpen bideoak eskaintzen ditu, interesgarriztat jotzen dituen Youtubeko beste bideo batzuk biltzeaz gain.

Flickr: argazkiak partekatzeko orri honetan, BOSek kontu bat sortu du, Orkestrak egiten dituen jarduera desberdinei buruzko argazkiak jartzeko.

Horietara guztietara sartzeko, BOSen web orrira sartu (www.bilbaorquestra.com), eta, bertan, zerbitzu berri hauetara jo eta izena eman.